

Data: Donostian. 2023ko maiatzak 13an

UDABERRIKO LEHEN ARGAZKI RALLYA AIETEN

Ekintza honek dituen helburuak hauek dira: familia eta lagun artean ondo pasatzea euskaraz, naturarekin eta bertarutzen zaretenekin giroa sustatzea eta argazkilaritzaren sustraietan hausnarketa bat egitea jolas moduan. Honetarako eguneko plana hurrengo da:

- **9:30-10:00**, IZEN EMATEAK Katxola baserrian. *Paraiso Kalea, 22, 20009 Donostia.*
- **10:00-10:30**, "Argazkilaritzaren jatorriak" hitzaldia Elena Barrueta, Ivasfoteko irakaslearen eskutik. Katxolan.
- **10:30-13:30**, Argazki Rallya eta argazkien entregatzeak. Katxolan.
- **14:00-17:00**, Piknika Basque Culinary Center-eko atzeko zelai eta mahaietan. Norberak bere etxetik ekarritakoak (*Maps.43.288193, -1.984946*).
- **17:00-17:30**, Sari banaketa. Basque Culinary Center-eko atzeko aterpean.

Argazki rallyrako arauak ondorengoak dira:

- Izena emango duzue ondorengo talde batean. Mugikor zenbaki bat utzi beharko duzue:
 1. FAMILIAN: Familian elkarrekin aterako dituzue argazkiak.
 2. GAZTETXOAK: 9 eta 16 urte bitartekoak.
 3. HELDUAK: 17 urtetik gorakoak.
- Argazkiak 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira Katxolan.
- Argazki digitalak ateratzen dituen edozein kamerak balio du. Mugikorretatik reflexak bitarteko guztiek.
- Filtroak jartzea edota beste motako laguntzak onartuak geratzen dira.
- Sei sail ezberdin daude, eta bakoitzeko argazki bakar bat aurkeztu daiteke:
 1. KOLOREAK
 2. FORMA BEREZIAK
 3. MUGIMENDUA
 4. LEKU BAT
 5. ANIMALIA EDO INTSEKTUA
 6. LANDARE EDO ZUHAITZA
- Watsap bidez bidaltzen baduzue argazkia; 6__ __ __ zenbakira bidali hau adieraziz; PARTAIDE ZENBAKIA eta SAILAREN IZENA. Adibidez: Partaidea 15 eta MUGIMENDUA; eta argazkia atxikitu.

- Argazkia beste formatu batean baduzue, eta ordenagailura deskargatu behar bada, zuek duzuen ordu topea 13:15ak dira. Antolakuntzak izango du ordenagailu bat eskura zuen argazkiak deskargatzeko.
- Debekatuak daude, egunean bertan egin ez diren argazkiak.
- Epaimahaia anitza izango da baita jarraituko dituzten irizpideak ere.
- Sari banaketara etortzerik ez baduzue deitu egingo zaizue.
- Sail bakoitzeko sari ezberdinak egongo dira
- Argazkiekin erakusketa bat egingo da auzoan. Jakinaraziko zaizue.

KATXOLA BASERRIA; Paraiso Kalea, 22, 20009 Donostia. IZEN EMATEAK eta HASIERA

BASQUE CULLINARY CENTER; Paseo Juan Avelino Barriola, 101, 20009 Donostia. PIKNIKA

